

udal**top**

III. Udaltop Topaketak
Talde-lanean
ateratako ideiak

Antolatzaileak



Lasarte-Oriako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAILARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako
Saiburuordetza



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Babeslea



kutxa

SARRERA

Hiru hausnarketa-ariketa egin dira talde-lanean: zer da euskaltzalea izatea, erdaldunen inguruan ditugun aurreiritziak eta lan-ildoen hautaketa. Gai bakoitzak duen garrantziari erreparatuta, atzekoz aurrera jaso ditugu ariketen emaitzak: lan-ildoekin hasi, euskaltzale izatearekin jarraitu eta gure aurreiritziak bildu ditugu, azkenik.

Ezer baino lehen, adierazi nahi dugu 14 taldek parte hartu dutela talde-lanean; 160 lagun ingururekin osatu genituen taldeak baina 135 inguruk hartu zuten parte. Beraz, zuetako askoren parte hartzearen emaitza da txosten honetan jaso duguna. Mila esker zure lankidetzagatik.

Hasteko, hona hemen, zure arreta piztuko dutelakoan, talde-lanean behin eta berriz aipatu direnak:

TALDE-LANEAN gehien aipatu diren aipu-gakoak: diskurtso berriak sortu, beharra sortu, erabilera-motor izan, seduzitu behar dugu, ludikotasunean sakondu, erdaldunengana hurbildu-harremanak sortu, transmisioan eragin, euskaldunon karga arindu, botere-publikoen eredugarritasuna -prestigioa- lehenetsi, asertibitatea erabili.

LANERAKO INTERESGARRIAK DIREN LAN-ILDO, JOERA ETA PROPOSAMENAK

Bost taldetan bildu ditugu: emozioekin lotutakoak, diskurtso aldaketarekin, euskal mundua ikustaraztearekin eta prestigioarekin lotutakoa; ondoren ekintza zehatzen zerrenda osatu dugu eta, azken atalean, besteak bildu ditugu.

Taldekatzeko honen inguruan aipatu nahi dugu erabili ditugun irizpideak guztiz subjektiboak izan direla; seguruenik beste modu batera kokatu zitezkeen aipuak; beraz, zuri dagokizu zurera eraman eta testuinguru egokian kokatzea.

DISKURTSOAREN ALDAKETA:

1. Gure burua birkokatu, birsortu behar dugu; "reinbentatu" behar gara, erdararekiko eta erdaldunekiko. Onura dela transmititu behar diegu;

euskaldun zaharrok ere geure burua hezi beharra dugu, erdaldunak erakarri nahi baditugu.

2. Ahalegin handiagoa egin behar da proposamen zehatzak lantzeko; euskararen hizkuntza eragileok jabetu behar gara gizartea bera eta euskarari erreparatzeko duen begirada -etengabe- aldatzen ari direla.
3. "Dena/deus ez" planteamendua alde batera utzi eta ikuspegia aldatu: bakoitzak -dagoen tokitik abiatuta- urrats txikiak eman ditzala hurbiltzeko. Gure hizkuntza portaerek ere jarrera aktiboak edo pasiboak eragin dezakete erdaldunengan. Zer ikasi badugu euskaldunok; TELP eta antzeko saioak lagungarri dira.
4. Erresistentziaren diskurtsoa alde batera utzi behar dugu, kontzeptu aldaketa egin behar dugu, positiboa behar du izan diskurtsoak, umoretsuagoa. Esaterako:
 - Nahimena + erosotasuna: baina zenbat euskaldun sentitzen dira eroso euskaraz egiterakoan erregistro ezberdinetan? Erosotasunagatik badakigu zein hizkuntza aukeratuko litzatekeen...
 - Irabaziak gureak baino, haienak direla ikustarazi behar zaie.
 - Eskerrona agertu euskara ikasi dutenei, aldeko lana egiten dutenei...
 - Baliagarritasunaren ideia zabaldu beharra dago, euskara baliagarri zaiela. Konektatu behar dugu ideia horrekin.
 - Elebitasunaren kontzeptutik hizkuntza aniztasunaren kontzeptura salto egin, hizkuntz ekologiaren gaia landu.
5. Euskaldunak kontziente izan behar dugu jokutzen dugun paperaz. Seduktore izateko jarraibideak, tresnak... eman. Diskurtso berria sortu. Gainera, euskaldunek, adibidea erakutsi behar diegu: ez bagara euskaraz mintzatzen, zer zilegitasun dugu besteari erraiteko: "euskara ikasi behar zinuke". Guztien arteko komunikazioa bermatu behar dugu norberaren hizkuntzari uko egin gabe; jarrerak landu beharko genituzke, sakon. Erabilera benetako motorra dela konbentziturata egon behar dugu, gu garela benetako motorra; betiere, jarrera atsegin batetik. Adibidez, "guk senegaldar bati erdaraz agurtzeak ez dauka inolako zentzurik"; kanpotik etorritako bati euskara ez eskaintzea bazterketa modu bat da -lan bat lortzeko, lagunak egiteko...-.
6. Diskurtsoa berregituratu beharra: Integrazioa ➔ Adopzioa; ideia interesgarri eta berritzailea: erdaldunak integratzeko objektutzat hartu beharrean, adopzioarako subjektutzat hartzea; sedukzioaren diskurtsoa garatu, elkartzeko edozein aitzakia topatu eta euskaraz bizi nahi dugula adierazi. Horretarako, gure indarrak batu eta epe ertainerako plan estrategiko parte-hartzailea adostu eta jarraitu; euskara adoptatu dutenekin eta oraindik adoptatu ez dutenekin gertuagotik lan egin, gure

planetan diseinutik bertatik hasita, parte hartze handiagoa bilatu behar dugu; bestela, arrisku handia dugu gure aurreiritziekin jokatzeko.

7. Diskurtsoaren berreraikitzean "berreskurapenetik irabazietara" pasatzea aztertu beharko genuke.
8. Modu baikorrean aurkeztu behar gara; askotan ezkorrak izateko joera dugu, tonu negatiboa erabiltzen dugu eta hori ez da bidea; ez dugu penarik eman behar; erakarri egin behar ditugu eta hori diskurtso positibo batekin bakarrik lortuko dugu. Orain arteko mezuak alde batera utzi behar dira: "gurea delako", "egin behar da", e.a. Horien ordez, erabili behar dira honelakoak: "nik nahiago dut", "gusturago sentitzen naiz", "proba ezazu zeuk ere", e.a. Mezua positiboa izan behar da beti.
9. HizkuntzaK defendatu beharra dago, ez soilik gure hizkuntza. Aniztasunaren inguruko mezuak landu behar dira -elebitasunetik ihes-gizarteratzeko baliabide bezala, harrera-kulturaz gozatzeko bidea, agian lana lortzeko baliabidea, bizitza errazago bilakatzeko bidea etab.
10. Banakakoari zuzendutako diskurtsoa landu eta hizkuntza ohiturak aldatu behar dira; horretarako gaitasuna azpimarratu, azalpenak saihestu eta arazoa begi-bistan jarri.
11. Euskal Herriko hizkuntza komun gisa euskara bultzatzen duen diskurtsoa landu eta egituratu behar da.
12. Euskara guztion ondasun bezala agertu behar da; txoko edo gune euskaldun erakargarriak sortu behar dira, erdaldunekin batera gure historiaz, kulturaz eta abarrez hitz egiteko eta konpartitzeko; sarea sortu behar da -AUZOKO eta Banaiz Bagara bezalako esperientziak, adibidez-. Jakinarazi beharko genieke nahiz eta euskara jakin ez beraien inplikazioa eta parte-hartzea ere behar-beharrezkoa dela. Baliabideak eskaini euskara ikastera animatzen badira, errazago izan dezaten. Euskal mundua erakargarri bilakatu: nola? kultur sormena garrantzitsua da; artisten eta abarren konplizitatea landu behar da.
13. "Gauza oso errazak ez dira erakargarriak" entzun dugu: gure proposamenetan agian kontuan hartu beharko genuke.
14. Erdaldunei ulermen mailara iristeko "beharra" sentiarazi beharko genieke, denok irabazten dugula adierazi. Paraleloan euskaldunekin ari behar dugu euskaraz egin dezaten ahal duten guztietan. Ideia honek lotura zuzena du kanpainetan, herritarrengana jotzerakoan, erabili beharreko diskurtso, mezu eta esloganekin. Hau guztia biziki zaindu eta elaboratu behar dugu bi irizpide hauek gogoan izanik:
 - ez ofenditu, erasotu, mindu;
 - erakarri, motibatu.

Honetan guztian oso lagungarriak izan dira Kataluniatik etorritako ekarpenak: oso garrantzitsua da tipologia ondo definitzea, erdaldunen egoera eta sentsibilitatea ezberdinak izango baitira jatorria eta bizi diren tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera.

EMOZIOEKIN LOTUTAKOAK:

1. Erdalduna pertsona moduan garatzen lagunduko dion interesetara gerturatu eta sakoneko gogoia piztea izan behar du gure egitekoa; erdaldunak euskara ikasteko interesa eta beharrak indartu, gurasoen kasuan umeekin lotutako jarduerak bideratuz. Garrantzitsua da erdaldunen hainbat hizkuntza jarrera -motibazioa, ikuspuntuak etab.- eta portaera ulertzeko gure ahalegina berritzea.
2. Txipa aldatu beharra: euskaldunak soilik ez, erdaldunak ere aintzat hartu behar ditugu. Gu nola sentitzen garen adierazi, kontatu. Eurengana hurbiltzeko estrategiak landu. Gu haiengana eta haiek guregana; ondo-ondoan, bertan, dugun errealitateaz jabetzeko. Euskaldun irekiago -malguago- eta, era berean, sendoago -argudioz, nagusiki- jokatu behar dugu. Modu asertiboan jokatzeko ikasi behar dugu, atseginean eta irribarrea galdu gabe arituz erdaldunekin; beraien gabeziak agerian utziz eta bizkar gainean dugun zama arinduz.
3. Afektibitatearen bidez hurbiltzea lortu behar dugu: hurbiltasuna, emozioa, sentimenduak... Bizipenak sortu, gozarazi, plazerarekin konektatu; eta pragmatismoarekin. Konbentzimendu osoz aldarrikatu euskara gozamen iturri dela. Komunitatearen parte direla edo izatea nahi dugula sentiarazi behar diegu.
4. Nork bere udalerrian erdaldunen iritziak/bizipenak/nahiak/asmoak jaso eta aztertu. Eurengana hurbildu; erdaldunei entzun, barruan dutena esaten utzi. Egoera zein den aztertu eta zailtasunak identifikatu. Beraiek partaide sentiarazi eta beraien kezkek, beldurrak etab. jaso, baita egin ahal dituzten ekarpenak ere. Emaitzak edo ondorioak aintzat hartu: mezua definitzeko eta komunikazio kanpainak eta esku-hartzeak orientatzeko erabili ekarpenak. Gainera, informazioa GIZARTERATU! (Diptikoak, webgunea, publizitate kanpaina etab.).
5. Etorrinak euskarara noiz hurbildu zain egon beharrean , euskara eurengana hurbildu.

IKUSTARAZI EUSKAL MUNDUA -bisibilitatea-:

1. Euskara eta euskal mundua gehiago ikustarazi behar zaie, bereziki, erdal medioen bidez, hauek botere handia baitute. Pertsona erreferenteen (kirolari, politikari...) hitzak ez itzuli, besteak beste; euskara erakargarri aurkeztu beharko genieke eta irabazi dezaketena erakutsi. Euskara barik "galtzen dutena" baino, euskarak dakarren abantailak aurkeztu (honela, modu positiboan landuz, emaitzak hobekak izan daitezke), seduzitu, hain zuzen.
2. Inplikatzeko aukera ezberdinak eskaini. *Euskara ikastea* ez da aukera bakarra: adibidez, guraso askoren kezka edo beharra seme-alabei etxeke lanak egiten nola lagundu da. Jadanik ez du balio "kafea denentzat" delakoa, norberari berea ematen saiatu behar dugu.
3. Hizkuntza-gatazka agerian utzi, ezkutatu ordez.
4. Arreta jarri behar zaio azken aldiko etorkinari, bai, baina gainontzeko etorkinei ematen diegun arreta bera. Zergatik ez dugu inoiz planteatu Salamancakoei edo Avilakoei harrera ematea?
5. Interesgarriak egiten zaizkien gaiak/ekintzak hartu ardatz eta guzti horretan euskararen presentzia bermatu, gero eta normalagoa izateko eta astiro haiena ere sentiarazteko. Euskaraz ez badakite, ekintza zer hizkuntza irizpiderekin gauzatu? Euskaraz izatekotan ondo pentsatu behar da nolako jarduera den egingarria: AUZOko, Banaiz Bagararen ildotik; bi esperientzia hauek interesgarriak dira herri txikietarako, batik bat.
6. Informatu, sentsibilizatu, baina ahalik eta erarik pertsonalizatuenean; baliabide eta aukera ugari daudela azaldu: informazio kanpaina mikroak, hautatzeko aukera denok dugu, baliabide horiek erabiltzeko arazoak eman.
7. Etorkinen kasuan, beste erakundeekin batera lan egin kanpainak eta abar antolatzeko: etorkinei zuzendutako harrera ikastaro bereziak antolatuz, doan; ez hizkuntza ikasteko, baizik eta gure gizartera hurbiltzeko; uren kezka, aurreiritziak, beldurrak jaso eta hori kontuan hartuta lanean hasi gure gizarteko zati bat direla senti dezaten (hizkuntza bera ikastea 2. pausoa izango litzateke, baina ez hasierakoa).
8. Linguamón bezalako ekimenetan parte hartzen badugu, gure mesederako izango dira euren ekarpenak.

PRESTIGIOA:

1. Arduradun politikoekin eta, oro har, komunikabideetan presentzia dutenekin, hau da, gizartean eragina dutenekin bilerak egin, jende aurrean euskaraz hitz egiteak daukan garrantziaz kontura daitezen. Jende aurreko adierazpenetan euskaraz egin dezatela. Erdaldunak ikusten badu euskarak garrantzia daukala eta bizitza publikoan baloratu egiten dela, ikasteko motibazioa handitzea errazagoa izango da. Hizkuntza-liderrak behar ditugu, prestigioan eragin nahi badugu.
2. Euskara teknologia berriekin lotu, prestigiatzeko.
3. Euskara erabiltzea ekonomikoki errentagarria bihurtu.
4. Urrun dagoen erdaldun bat euskarara hurbilduz, gertu dagoen bat ere erakar genezake: senegaldar bati euskaraz entzuteak zer pentsatua ematen die hemengo erdaldunei.

EKINTZA ZEHATZAK:

1. Gure plangintzetan erdaldun elebakarren ikuspuntua ere txertatu gure helburuak alboratu gabe.
2. Hizkuntza-gaitasunaren araberako urratsen mapa osatu; adibidez, euskara ez dakitenentzat euskararen aldeko jokaera zehaztuz etab.
3. Elebidun hartzaileen potentzialitateak lantzeko kanpaina; elkarrizketak euskaraz-erdaraz bideratzeko jarraibideak eman.
4. Herriko euskara aldizkariari euskarari buruzko erdal gehigarri bat gehitu.
5. Euskarara hurbiltzeko programa edo egitasmoak sortu aisialditik enfokatuta, euskararako -hiztun komunitaterako- sarbide gisa.
6. Elkarren bizipen eta sentipenen berri eman, enpatia sortu... WORD KAFE baten bidez?
7. Euskara eta euskal mundua gehiago ikustarazi behar zaie, bereziki, erdal medioen bidez, hauek botere handia baitute. Pertsona erreferenteen -kirolari, politikari...- hitzak ez itzuli; idoloak-ereduak sortu.
8. Foroak antolatu beraien harremana euskararekin zein den entzuteko; zer bizipen -hizkuntza biografiak-, zer ilusio, kezka eta bestelakoak jaso eta egitasmo berrietarako erabili.

9. Elkar ezagutzatik proposamen zehatzak egin: umeeekin egin ahal dutenari begira, euskalduntzeari begira, jarrera mailan etab. Adibidez, gurasoei -eskolen lankidetzarekin- hitzaldi, tailer eta bestelako bidez euskaldun berrien herriko bizipenak agerrarazi (herri aldizkariak), erdaraz egitea interesgarria da.
10. Hiri edo herriko egoera soziolinguistikoaren eta bilakaeraren berri eman; hizkuntzen arteko konbergentziaz, ordezkapenaz etab. informazio ulergarria eskaini. Euskaraz egiten diren ekintzen berri eman; euskara zerbitzuaren berri eman, baliabideak, laguntzak, euskara ikastearekin zer irabazten duten argi adierazi...
11. Euskal hitzen bilketa (Arabian ugaritu baitira gazteleraz erabiltzen direnak), lehiaketa. Etxean erabiltzen dituzten euskal hitzak bildu eta liburuxka bat argitaratu. Helburua; euskalduntasuna indartu, euskara bera ere badela ikustarazi.
12. Inkesta bat egin herrian. Euskararen inguruan dauden sentsibilitateak, iritziak eta jarrerak aurreikusteko. Iradokizunetarako bidea eman.
13. Etorrinen kasuan, eskoletako geletan gehienezko kopurua jarri integrazioa-adopzioa bermatzeko:
 - Bereziki hizkuntza planak dituzten erakundeetako erdaldunei begira;
 - Haien nahiak eta beharrak ezagutu;
 - Garaten ari garen planaren inguruan haien pertzepzioa ezagutu;
 - EMUNekoek egindakoaren bidetik, hiru saioko dinamika kontuan hartu eta komunikazio-plan berezitua diseinatu;
 - Trebatzailearen irudia sartu erakundean. Banan banako elkarrizketak egin erdaldunekin, beraien pertzepzioa jaso ahal izateko. Hasieran taldeka egin ordez, banaka egitea komeni. Hortik abiatuta, hizkuntza planean sartzen saiatu. Baina, lehenengo, beldurrak, aurreiritziak eta kezak uxatu.
14. Euskaltegien eskaintza: ulermena garatzeko ikas-lerroak abiatu.
15. Hizkuntza baino gehiago eskaini: gizarte giro bat, alde baikorrak aitzinera agertuz, ikasteko fruitua argi izan behar dute. Hizkuntza ikasiz, ez dute ezer galdu behar: haien jatorria, haien historia; haien nortasuna ez dela galduko adieraztea; gure nortasunak ere irabazi egingo duela onartzea. Eragile aktibo sentitu behar dira hizkuntzari esker, eta herriaren historiaren eragile direlako, herritar eta hiztun bezala. Hizkuntza ikastea hazkunde pertsonalarekin lotu behar da.

16. Irakas-geletara ludikotasuna eta praktikotasuna geletara erakarri behar da.
17. Elebakarren, ikasketa prozesua egin dutenen eta bidean gelditu direnen lekukotasunak jaso -ahotsak.com, bigarren fasea-.
18. Aurreiritziak desmuntatzeko kanpainak herri erakundeetatik (administrazio publikoa), beti ere, xede talde bakoitzari dagokiona helaraziz.
19. Hurrek inguruan sortzen duten euskararen aldeko hautuan sakondu, udalak eta ikastetxeek elkarren sinergiak batu eta esperientzia berriak abian jarri.
20. "Harrera-lana" garrantzitsua da. Egin beharko litzateke herri-erakunde guztiekin batera, eta bertan etorkinei hasieratik esan euskara existitzen dela, bertoko hizkuntza dela, gizarteratzeko erraztasunak ematen dituela etab.

BESTELAKOAK:

1. Erdaldunen inplikazio programen alde diru gehiago jartzea ezinbestekoa da.
2. Akordio politiko zabal bat, elkarbizitza helburu izango duena eta erakundeetako arduradunen praktika linguistiko eredugarria bideratuko duena.

ZER DA EUSKALTZALEA IZATEA?

1. Jarrera bat da; euskararen aldeko jarrera; euskara maite duena da euskaltzale. Nahiz eta euskaraz jakin ez, aldeko jarrera beti izango da positiboa.
2. Non ari garen, hau da, gune soziolinguistikoaren eta testuinguruaren arabera, euskaltzale definizioak adiera edo esanahi ezberdinak har ditzake. Graduazioak daude pertzepzioan: Gipuzkoan gauza bat dirudiena beste bat irudi lezake Araban. Toki batzuetan neutroa izatea euskaltzalea izatea da.
3. Euskaltzaleak ez diren euskaldunak dauden bezala, euskaltzalea izateko ez da zertan euskalduna izan.
4. Euskaldun-berrien meritua ikaragarria da; horiek beti dira euskaltzale. Beraien ekintzak bihurtu ditu euskaltzale, zernahi

pentsatuta edo zeinahi iritzi izanda ere.

5. Argi samar dago abertzale izateak ez duela bermatzen euskaltzale izatea.
6. Euskara bere barnean integratua du euskaltzaleak.
7. Gune soziolinguistiko euskaldunetan eguneroko praktikan euskaraz egiten duena izan liteke euskaltzalea; gune soziolinguistiko erdaldunetan, aldiz, umeak D ereduan matrikulatu eta euskarekiko lotura edo beharra sentitu eta transmititzen dituen.
8. Testuinguruaren arabera gune eta giro sozial batean gutxi dena, beste batean asko ematea izan daiteke.
9. Azken finean, erdaldun egoeratik euskarara hurbiltzeko bidea -ibilbidea- egiten duen hori euskaltzalea dela esango genuke, ikasteko aukerarik izan ez arren aldeko jarrerak dituen, oinarrizko hiztegia ikasi eta erabiltzen hasten dena etab.
10. Jarrera bai, baina konpromisoa da falta dena. Jarrera moda kontua izan daiteke, denok umea D ereduan matrikulatzen dutenez ba nik ere bai eta horrela gauza guztiekin.
11. Euskara ikasteko beharra sortu behar da eta gaur egun behar hori ez dago gizar-tean, euskara ez da ezinbestekoa bizitzeko.
12. Euskara ez ikasteko arrazoi-tako bat denbora falta aipatzen da askotan baina nahia edo motibazioa da benetako arrazoa.
13. Batzuetan folklore mailan gelditzen da dena eta hori gainditu beharra dago.
14. Erdaldunak integratzeko xedez batzordeetan gaztelaniaz egiten hastea atzerapausoa litzateke. Edonola ere, foro edo euskara batzorde berrietan gaztelaniaz egiteko aukera aztertu beharko litzateke, eta, erdaldunei parte hartzeko aukerak eskaini. Dena den, erdaldun jendea sartzen badugu batzordeetan, oso ondo aztertu beharko da, aurretiaz, hizkuntzen kudeaketa nola bideratuko den.
15. Noiz arte jarraitu dezakete hemen bizi diren askok "euskaltzale" izaten euskara jakin gabe? Zergatik "onartzen" dugu hori? Egiten dituzten keinu horiekin nahikoa al da?
16. Argi gelditu da hizkuntza-jarreraren eta portaeren artean aldeak daudela, inkoherentzia, hain zuzen.
17. Euskaltzalea izatea ez da beharrezkoa euskararen egoera normalizatzeko, nahiz eta oinarrizko aldeko jarrera bat lagungarria izan.

ERDALDUNEN INGURUKO AURREIRITZIAK

1. Gure aurreiritziak ez dira berdinak Oñatin edo Erriberan; ez ditugu erdaldun guztiak zaku berean sartu behar.
 2. Erdaldun askori ez zaie inporta euskara ikastea. Erdaldun batek euskara ikasi nahi ez duenean, ona izango litzateke aztertzea zer hizkuntza esperientzia izan duen euskararekin.
 3. Erdalduna euskaldundu ez bada ere, baditu inguruan modu ezberdinak bere ekarpena egiteko. Erdalduna ere euskal munduaren parte izan daiteke. Euskaltzale izatea jarrera eta praktika bat da, baina eskala ezberdinekin; erdaldun horren historia pertsonala kontuan hartu behar dugu eskaera egiterakoan.
 4. Gazteleraduna gehienetan elebakarra da; hainbatetan euskara ulertzeko duen ezintasunagatik mintzen da.
 5. Gaztelaniara lerratzeko arauaren aurrean, euskaldunok sentitzen duguna erdaldunei ezagutarazi beharko genieke. Zenbait erdaldunek ez du gure deserosotasun-sentimenduaren berri. Erakutsi egin behar diegu, "ebidente" egin.
 6. Erdaldun bat hurbiltzen zaigunean erdarara "pasatu behar gara"ren lekuan "pasatu gaitzke" jarriko genuke, komunikazio helburuaren arabera jarrera bat edo beste hartuko baitugu. Kontuan izan behar da zein hurbiltzen den, zein jarrera duen... Lehenengo urratsa ondo konpontzea da, harremana sortzea. Dena den, ez dugu zertan automatikoki hizkuntza aldatu: erakutsi behar dugu ez dela edukazio txarrekoa guk ere gurea mantentzea; bakoitzak nahi duen hizkuntza erabili ahal izatea.
 7. Askotan gure aurreiritziak gailentzen dira, "hizkuntza-sumisio" praktikatzen dugu. Naturaltasuna berreskuratu behar dugu, ezer inposatu barik.
 8. Gaitasun batzuk euskara baino gehiago baloratzen dira gizartean, oro har; ez dugu sozializatu, behar adina eta egoki, hizkuntza ezinbesteko gaitasuna dela.
-